

## I. ADITZ SINTETIKOAK IRAGANEAN (1)

- Gogoan izango duzu, noski, nolakoak diren aditz konposatuaren denborak eta aspektuak :

	orainaldia			iragana		
'jadanik'	JOAN	NAIZ	he ido	JOAN	NINTZEN	fui
'beti'	JOATEN	NAIZ	voy	JOATEN	NINTZEN	iba
'gero'	JOANGO	NAIZ	iré	JOANGO	NINTZEN	iría / habría ido

Los verbos sintéticos, por su parte, expresan un aspecto puntual y no acabado; se refieren a lo que sucede ahora —si el verbo es presente— o a lo que sucedía en aquel preciso momento —si es pasado—.

'oraintxe': NAIZ, NAGO, NABIL, NOA, NATOR...

'orduantxe': NINTZEN, NENGOEN, NENBILEN, NINDOAN, NENTORREN...

- Hortaz, **NENGOEN, NENBILEN, NINDOAN** eta **NENTORREN** adizkiak iraganeko momentu puntual eta jakin bati dagozkio.

La referencia a ese momento puntual y concreto aparece a veces en la misma oración :

Jaiki naizenean, Juanjo sukaldean <b>zegoen</b>	Cuando me he levantado, Juanjo <b>estaba</b> en la cocina
Kalean ikusi nauzuenean, zinetik <b>nentorren</b>	Cuando me habéis visto en la calle, <b>venía</b> del cine
Jende guztia haserre <b>zebilen</b> atzo	Ayer todo el mundo <b>andaba</b> enfadado
Nora <b>zindoazen</b> lehen?	¿A dónde <b>ibas</b> antes?

Otras veces dicha referencia queda implícita en el contexto :

Berandu <b>zetorren</b> trena	El tren <b>venía</b> tarde
Nora <b>zindoazen</b> horren presaka?	¿A dónde <b>ibas</b> tan rápido?
Lagunak haserre <b>zeuden</b>	Los amigos <b>estaban</b> enfadados
Jende asko <b>zebilen</b> azokan	<b>Andaba</b> mucha gente en el mercado

Con frecuencia estas formas verbales llevan los sufijos de subordinación que ya conoces, **-ela, -en, -enean, -elako...** :

Korrika <b>zetorrena</b> nire anaia zen	El que <b>venía</b> corriendo era mi hermano
Gaixo <b>zegoelako</b> eramán zuten ospitalera	Lo llevaron al hospital porque <b>estaba</b> enfermo
Bizikletan <b>zebilela</b> erori zen	Se cayó cuando <b>andaba</b> en bicicleta
Berandu <b>zihoala</b> uste zuen	Creía que <b>iba</b> tarde

## I.1. NENGOEN

SINTEKIKO

• Forma:	(ni) .....	<b>NENGOEN</b>
	(zu) .....	<b>ZEUNDEN</b>
	(hura) .....	<b>ZEGOEN</b>
	(gu) .....	<b>GEUNDEN</b>
	(zuek) .....	<b>ZEUNDETEN</b>
	(haiek) .....	<b>ZEUDEN</b>

### • Erabilera :

<b>nola egon:</b>	zure zain nago	-	zure zain nengoen	(estar esperando)
	begira dago	-	begira zegoen	(estar mirando)
	oker zaude	-	oker zeunden	(estar equivocado)
	zuzen gaude	-	zuzen geunden	(estar en lo cierto)
	itxita daude	-	itxita zeuden	(estar cerrado)

<b>non egon:</b>	etxean dago	-	etxean zegoen
	ohean nago	-	ohean nengoen
	han daude	-	han zeuden

<b>edo:</b>	lagunekin dago	-	lagunekin zegoen
	elkarrekin daude	-	elkarrekin zeuden
	horretarako zaude	-	horretarako zeunden

- Gaztelaniazko **hay, había** adierazteko ere **egon** aditzaren hirugarren pertsona erabiltzen da askotan :

Ez al dago inor?	-	¿No hay nadie?
Jende asko zegoen	-	Había mucha gente

Salda badago	-	Hay caldo
Partiduak badaude	-	Hay partidos
Argirik ba al zegoen?	-	¿Había luz?
Taxiak bazeuden	-	Había taxis

**Gogoratu :**    **zegoen**    = 'estaba entonces'  
                   **egoten zen** = 'solía estar'

## ARIKETAK

### 1. Aditz-formak ikasteko, pasa itzazu **iraganera** —pasadora— ondoko esaldiak:

1. Ama ez dago pozik seme-alabekin. → *Ama ez zegoen pozik seme-alabekin.*
2. Trenaren zain nago.
3. Ez dago aurrera egiteko modurik.
4. Non daude giltzak?
5. Zeri begira zaude?
6. Beti bezalaxe gaude, pobre baina alai.
7. Zergatik zaude horren serio?
8. Edozer gauza egiteko prest nago.
9. Igandea izan arren, dendak irekita daude.
10. Ez al zaudete lasai?
11. Nirekin haserre zaudela entzun dut.
12. Mutilen gela hutsik dago.
13. Lasai asko gaude, aulkian eserita.
14. Itsasora begira nago.
15. Zuen esku dago partidua irabaztea.

### 2. Bete itzazu hutsuneak **egon** aditzaren **iragana** erabiliz (gogoan izan batzuek **-en, -ela, -enean, -elako** edo horrelako atzizkiren bat daramatela):

1. Ni urduri ... , baina ama ni baino urduriago ... . (*nengoen, zegoen*)
2. Joan den udako Aste Nagusian hotel guztiak beteta ... .
3. Zu iritsi zinenean, jaikita al ... ama?
4. Gaur goizean oso jenio txarrekoa ... . Zerbait gertatu al zaizu?
5. Lehen hemen ... gizonak gure herrikoak dira.
6. Istripua gertatu zenean, autobusaren zain ... gu.
7. Adizu, zergatik ... horren serio atzo goizean?
8. Ni lanera joan nintzen; gaixorik ... nire anaia zen.
9. Gaur goizean ez zaitzuet etxean ikusi. Non ... ?
10. Ezagutzen al duzu atzo zure amarekin ... emakumea?
11. Zu etorri arte ez ... lasai ni.
12. Goizean, lanera joan naizenean, geldi ... taxi guztiak.
13. Non sartu duzu hemen ... argazkia?
14. Pelikula hasi zenean, kalean ... . Horregatik ez zenuten hasiera ikusi.
15. Orain Getarian dagoen Elkanoren irudia lehen Donostian ... .
16. Partidua itsusia izango zela uste genuen, baina oker ... polita izan da.
17. Oso nekatuta ... eta ohera joan zen berehala.
18. Jaiki naizenean erdipurdi ... , baina orain hobeto nago.
19. Gu ez ... denbora galtzeko prest.
20. Igandero bezala etorriko zinelakoan ... lagunak.

3. Bete hutsuneak, **hay** edo **había** adierazteko (batzuek atzizkia behar dute):

1. Gaur goizean ez ... inor dendan eta orain beteta dago.
2. Txikiak ginenean, ez ... telebistarik.
3. Non utzi duzu mahai gainean ... ?
4. Etxean ... guztia eraman dute lapurrek.
5. Ez, ez ... saldarik. Lehen ba ... , baina ahitu da.
6. Elurrik ez ba... , ezingo gara eskian ibili.
7. Lehen hori dena mendia zen. Baserri batzuk ba... , baina etxerik ez.
8. Lehen bi egunkari ba... gure herrian, bat goizean eta bestea arratsaldean. Orain ez ... batere.
9. Jende gutxiago ... hobeto bizi ginen.
10. Ezin genuen telebista piztu, argirik ez ... .

4. Ikasi duzu **egon** aditzaren iragana erabiltzen. Itzuli, orain, esaldi hauek euskarara:

1. ¿Estabas esperándome?
2. Los padres estaban nerviosísimos.
3. No había forma de abrir la puerta.
4. Estábamos mirando al mar.
5. Hasta verte no estaba tranquilo (yo).
6. Las calles estaban vacías.
7. ¿Quién estaba en casa cuando llegaste?
8. Cuando terminó la película, no había nadie en la sala.
9. Estabais muy elegantes.
10. Creíamos que vivían en Bilbao, pero estábamos equivocados. Viven en Leioa.
11. Se llevaron todo lo que había en casa.
12. ¿Quién estaba esperándote?
13. ¿Por qué estabas tan preocupado ayer?
14. ¿Conocías a los chicos que estaban en casa de Arantxa?
15. Estabas en lo cierto: el paro ha vuelto a subir.
16. Estabais equivocados: mañana no es fiesta.
17. Cuando llegué a casa, todo el mundo estaba acostado (ohean).
18. Ayer estaba muy cansado; hoy estoy mejor.
19. Me han dicho que estabas esperando a alguien.
20. Esa casa antes estaba vacía, pero ahora parece que vive gente.
21. Yo estaba levantada. La que estaba acostada era mi hermana.
22. Eso estaba en vuestras manos.
23. Cuando me has visto, estaba esperando a Lurdes.
24. No pudieron jugar el partido, porque no había luz en el campo.
25. Antes había aquí unas tiendas.
26. ¿Estabas dispuesto a perder dinero?
27. Cada vez estaba peor el pobre.
28. Estaba muy oscuro.
29. Cuando yo he venido no había nada sobre la mesa.
30. ¿El paquete que había aquí era tuyo?

## Testuak lantzen

**1** Bete itzazu ondoko testuetako hutsuneak, **egon** aditza erabiliz :

1. —Adizu, Miren, zure etxera deika aritu naiz lehen eta ez duzu erantzun.  
Lo al ... ?  
—Zer ordutan deitu duzu?  
—Hamarrak aldean.  
—Hamarretan ohean ni? Bai zera! Ordurako jaikita ...  
—Eta zergatik ez duzu, bada, telefonoa hartu?  
—Kanpoan nintzelako. Lurdesen etxean nintzen. Oso urduri ... Lurdes  
eta hura lasaitzera joan naiz. Kostatu zait, baina lortu dut azkenean. As-  
koz lasaiago ... orain.  
—Zer zuen, bada?  
—Pelikula beldurgarri bat ikusi omen zuen atzo eta beldurrak ... gai-  
xoa. Gau osoa esna pasatu omen du.  
—Pelikula batengatik horrela?  
—Bai, hiltzaileak zure antza omen zuen.
  
2. —Zertara etorri zarete? Honen lasai ... gu tele ikusten eta zuek azal-  
du behar!  
—Bai? Lasai al ... ? Ez al duzue, bada, berria entzun?  
—Zer berri?  
—Aste honetako loteria gure herrian erori dela!  
—Loteria hemen erori dela? Hau suerte txarra!  
—Nola, ordea, suerte txarra?  
—Horixe dela suerte txarra ! Aste honetan guk ez dugu loteriarik erosi.  
Erostera joan ginenean, dezimo guztiak salduta ... esan ziguten.
  
3. —Eskerrak medikuarengana joan nintzen. Hark esan zuenez, oso gaiz-  
ki ... . Orain, hari esker, askoz hobeto nago: bajan eta, gainera, oi-  
nazerik gabe.

## HAMAHIRU MAHAIAN

'Hamahiru' zenbakia txarra dela diote batzuek. Suerte txarra dakarrela, alegia. Beste batzuek, berriz, horiek sineskeriak direla uste dute. Beste zenbakiak bezalakoa dela 'hamahirua' ere. Hona hemen gai horren inguruko bi kontakizun.

### A.

Gizon atsegina zen Mikel Larraburu, lagunartea maite zuena. "Aspaldi ez ditut karrerako lagunak ikusi —pentsatu zuen egun batean—. Lehen beti elkarrekin izaten ginen eta orain ez dugu inoiz elkar ikusten. Bazkaltzera gonbidatuko ditut..."

Pentsatu eta egin. Bazkaltzera gonbidatu zituen aspaldiko lagunak. Baita haiek pozik etorri ere!

Lehen agurrak egin ondoren, kontu kontari hasi ziren denak, bakoitzak bere berri emanaz. Ondo bizi ziren denak. Kolokatuta zeuden, lana bazuten...

Berriketa batzuk egin eta gero, jangelara pasatu ziren eta mahaian jarri ziren. Mahaian jarrita zeudela, neskamea etorri zen marmarrean sukaldetik, zopa-ontzia eskuetan zuela.

—Banengoen, bada, berriketa horiek ez ote ziren sekula amaituko. Zopa hozteko ere...

Lagunak ikusi zituenean, berriz, ontzia mahai gainean utzi eta nagusiaren ondora joan zen lasterka :

—Ai ene! Ezin dut, jauna; horrela ezin dut zerbitu!

—Nola ezin duzula? —nagusiak harrituta.

—Kontatu, mesedez, kontatu zenbat lagun zaudeten mahaian.

Kontatu zituen Mikelek eta... hamahiru lagun zeuden.

—Zuetako batek etxera joan beharko du —esan zuen serio neskameak.

—Baina zer diozu, emakumea? —esan zion Mikelek haserre—. Txorakeriak dira horiek.

—Txorakeriak? Ez, jauna, ez dira txorakeriak. Nik badakit zer gertatzen den mahaian hamahiru lagun biltzen direnean.

—Zer gertatzen da, bada?

—Beti norbait hiltzen dela besteak baino lehenago!



## B.

Adizu, Matilde, mahai batean hamahiru lagun esertzea gauza txarra dela uste al duzu? —galdetu zion behin Nekane neskameari.

—Bai, andrea, izugarri txarra —erantzun zion honek—; janaria hamarrentzat baizik ez dagoenean, batez ere.

---

sineskeria: *superstición*

- a. Aurkitu goiko testuetan hitz edo esaldi hauen antzekoak.  
(Halla en los textos expresiones semejantes)

adiskideak	hizketa	bukatu	etxejojaun	esaten duzu
tontakeria	oso	gustora	zerbitzari	zenbait

- b. Erantzun:

1. Hamahiru zenbakia dela eta, denok berdin pentsatzen al dugu?
2. Gizon bakartia al zen Larraburu jauna?
3. Bere lantegiko adiskideak gonbidatu al zituen?
4. Nola zuen izena lanik gabe zegoen lagunak?
5. Denbora luzean egon al ziren hizketan, jangelara pasatu aurretik?
6. Berriketa horiek direla eta, zeren beldur zen neskamea?
7. Zergatik joan zen neskamea lasterka nagusiaren ondora?
8. Nola konpondu nahi zuen neskameak hango problema?
9. Nagusia lasai geratu al zen?
10. Neskamearen ustez, zer gertatuko da hamahiru bazkaltiar badira?

- c. Kontatu edo idatzi zeure modura 1. kontakizuna.

## I.2. NENBILEN – NINDOAN – NENTORREN

• Forma :

(ni)		<b>NENBILEN</b>		<b>NINDOAN</b>		<b>NENTORREN</b>
(zu)		<b>ZENBILTZAN</b>		<b>ZINDOAZEN</b>		<b>ZENTOZEN</b>
(hura)	-an	<b>ZEBILEN</b>	-ra	<b>ZIHOAN</b>	-tik	<b>ZETORREN</b>
(gu)		<b>GENBILTZAN</b>		<b>GINDOAZEN</b>		<b>GENTOZEN</b>
(zuek)		<b>ZENBILTZATEN</b>		<b>ZINDOAZTEN</b>		<b>ZENTOZTEN</b>
(haiek)		<b>ZEBILTZAN</b>		<b>ZIHOAZEN</b>		<b>ZETOZEN</b>

• Erabilera :

<b>1 non ibili:</b>	mendian nabil	-	mendian nenbilen
	kalean gabiltza	-	kalean genbiltzan
	<b>zertan ibili:</b>	jolasean dabilta	-
	igerian dabil	-	igerian zebilen
<b>nola ibili:</b>	ondo dabil	-	ondo zebilen
	larri zabiltzate	-	larri zenbiltzaten
	galduta zabilta	-	galduta zenbiltzan
<b>norekin ibili:</b>	Kororekin nabil	-	Kororekin nenbilen
	mutilekin dabil	-	mutilekin zebilen
<b>2 nora joan:</b>	zibera noa	-	zibera nindoan
	Parisa doa	-	Parisa zihoan
	<b>nola joan :</b>	autoz doaz	-
	gaizki zoaz	-	gaizki zindoazen
	ondo zoazte	-	ondo zindoazten
<b>norekin joan:</b>	elkarrekin goaz	-	elkarrekin gindoazen
<b>3 nondik etorri:</b>	afaritik dator	-	afaritik zetorren
	lanetik nator	-	lanetik nentorren
<b>nora etorri:</b>	eskolara datoz	-	eskolara zetozen
<b>nola etorri:</b>	urduri gatoz	-	urduri gentozen
	bakarrik datoz	-	bakarrik zetozen
<b>norekin etorri:</b>	Jonerekin datoz	-	Jonerekin zetozen